



## **Udalaren berdeguneak, parkeak, lorategiak, zuhaiztiak eta bideak iraunarazteko zerbitzuaren esleipena**

Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko urriaren 5eko bilkuran hartutako akordioarekin bat, iragarki honen bidez prozedura ireki baterako deia egiten da ondoko zerbitzua esleitzeko: "**Udalaren berdeguneak, parkeak, lorategiak, zuhaiztiak eta bideak iraunarazteko zerbitzua**" Kontratua arautze harmonizatupean burutuko da, eta esleipena irizpide anitzak erabiliz —besteak beste, ekonomikoki abantaila gehien dituen eskaintza—. Hona hemen kontratuaren datuak:

**1.- Erakunde esleipen-egilea:** Gorlizko Udala.

**2.- Kontratuaren helburua.**

**a) Xedearen deskribapena:** "Udalaren berdeguneak, parkeak, lorategiak, zuhaiztiak eta bideak iraunarazteko zerbitzuaren esleipena"

**b) Kontratua burutzeko lekua:** Gorliz.

**c) Burutzeko epea:** Bi urte eta beste urte bat luzatzeko aukerarekin.

**3.- Izapideak, prozedura eta esleitzeko modua.**

**a) Izapidetzea:** Ohikoa.

**b) Prozedura:** Irekia.

**c) Modua:** Arautze harmonizatupeko kontratua, esleipen-irizpide anitzak erabiliz.

**4.- Lehiaketaren oinarrizko aurrekontua:** Zenbateko garbia: 522.720,00 euro; BEZ, %21, 109.771,20 euro. Zenbateko osoa: 632.491,20 euro.

**5.- Bermeak:** Administrazio Hitzarkinen Orrietan ezarritakoaren arabera.

**6.- Dokumentazioa eta informazioa lortzea:**

**a) Entitateak:** Gorlizko Udala, Herritarren Arretarako Zerbitzuan, 9:00-13:00.

**b) Helbidea:** Eliz Plaza, z/g.

**c) Herria eta posta-kodea:** 48630-Gorliz.

**d) Telefonoa:** 94.677.01.93

**e) Telefaxa:** 94.677.58.07



**7.- Bestelako baldintzak:** Espainiarrak ez diren enpresek beren kaudimena egiaztatu beharko dute Arlo Publikoaren Kontratuei buruzko Legean ezarritakoaren arabera.

**8.- Dokumentazio-eskariak jasotzeko epea:** 2017ko azaroaren 24ko 13:00 arte.

**9.- Eskaintzak aurkeztea:** 2017ko abenduaren 1ko 13:00 arte.

**10.- Eskaintzak irekitzea:** Gorlizko Udaletxean, lehiatzaile bakoitzari nahiko aurretiaz jakinaraziko zaizkien egun eta orduan.

**11.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa eta gainerako baldintzak eta informazioa:** Administrazio Hitzarkinen Orrietan ezarritakoaren arabera.

**12.- Iragarkiaren gastuak:** Esleipen-hartzailearen kontura, Hitzarkinen Orrien arabera.

**13.- Iragarkia Europako Batasunaren Aldizkari Ofizialera bidalitako eguna:** 2017ko urriaren 19an.

Gorliz, 2017ko urriaren 19a



ALKATEA

Arantza Etxebarria Villabeitia